 - i. Erabiliko dan kirol materiala eta instalazioak jagon beharko dabez, behar dan moduan erabilita. Ezelango akatsik-edo topatu ezkerro, ordezkariori edo entrenatzaileari esan beharko deutsie
 - j. Danak Bat Pelotazale alkarteak itxitako ekipazinoa eta ganerako materiala behar dan moduan, ondo, bueltatuko dabe. Arau hau bete ezean, kirolari horrek ordaindu edo ordezkatu beharko dau berak itzikieriagaitik edo ardurabakokeriagaitik hondatutako materiala.
 - k. Ekitaldi eta jarduera guztietañ jokatu beharko dabe errespetuz eta gizalez ganerako kirolariakaz, epaileakaz, entrenatzaileakaz eta jarduerari lotutako beste edozein pertsonagaz.
 - l. Euren kirol jarduera Danak Bat Pelotazale alkarteak daukan markoaren barruan garatzeko konpromisoa hartuko dabe, alkartearen kirol eta prestakuntza interesak kaltetu barik eta euren ikasketa-prozesuaren ganean teknikariekin emoten deutseezan orientabideei kasu eginda.
 - m. Idatziz aurkeztu beharko dabe baimena-eskaria Danak Bat Pelotazale alkarteak antolatu, planifikatu edo programatu ez dituan (euren adinerako edo esperientza-mailarako) ekintzetan parte hartu ahal izateko.
 - n. Klubeko ganerako kideakaz modu aktiboan parte-hartu eta lan egingo dabe, guztien arteko alkarbitzta hobea izan daiten.

- f. Asistir a todos los eventos que sean convocados, oficiales o privados, con la equipación deportiva establecida por el Club en cada momento. El equipamiento deportivo es el principal identificador y sus deportistas están obligados a llevarlo correctamente. El aspecto e higiene de los deportistas debe ser el correcto.
- g. Justificar las ausencias a los eventos por escrito, debiéndolo comunicar a su entrenador con la suficiente antelación (mínimo siete días), salvo por causas de fuerza mayor justificados. Se consideran justificados los siguientes:
 - i. Enfermedad, motivos familiares y motivos docentes.
- h. Llegar con la suficientemente antelación a la hora indicada, tanto a entrenamientos (20 minutos), partidos (30 minutos) como a cualquier otro evento al que haya sido convocado.
 - i. Los partidos que estén integrados en un festival de pelota deberán regirse por esta norma:
 - 2º partido: Presentarse a la hora de inicio del festival de pelota.
 - 3º partido: 30 minutos después de la hora de inicio del festival de pelota.
 - 4º partido: 60 minutos después de la hora de inicio del festival de pelota.
- i. Cuidar de cualquier material deportivo que utilice, haciendo un uso adecuado del mismo y de sus instalaciones. A tal fin deberá comunicar cualquier anomalía detectada a su delegado o entrenador.
- j. Devolver en perfectas condiciones la equipación o material facilitado por el Danak bat P. A para su uso, siendo responsable de satisfacer económicamente o reponer aquello que sea deteriorado por negligencia o descuido.
- k. Comportarse con respeto y corrección en cualquier evento o actividad ante deportistas, jueces, entrenadores y cualquier otra persona relacionada.
- l. Comprometerse al desarrollo de la actividad deportiva dentro del marco del Danak bat P. A, sin perjudicar los intereses deportivos y formativos del mismo, atendiendo a las orientaciones de los técnicos respecto a su aprendizaje.
- m. Solicitar por escrito el poder participar en cualquier actividad no organizada, planificada o programada por el Danak bat P. A. para el deportista por su edad o experiencia.
- n. Participar y colaborar activamente con el resto de miembros del club, a fin de favorecer el mejor desarrollo de convivencia.
- o. Debe cuidar y respetar las instalaciones donde se realiza la actividad, cumpliendo en todo momento las normas particulares de cada entidad.
- p. En caso de querer darse de baja del club, lo deberá hacer por escrito argumentando los motivos.

- o. Jarduera egiteko erabilten diran instalazinoak jagon eta errespetu beharko dabez eta entidade bakotxak ezartzen dituan arauak beteko dabez beti.
- p. Klubeko kide modura baja hartu gura izan ezkero, idatziz aurkeztu beharko dabe baja hori, eta idazkian, arrazoiak azaldu beharko dabez.

9. art.- GURASOAK EDO GURASO-AHALAREN TITULARRAK.

Kirolari batek Danak Bat Pelotazale alkartelean izena emoteak esangura dau kirolari horrek edo bere legezko arduradunak ezagutu eta onartu egiten dituala alkartearen Estatutuak, eta batez bere, konpromisoa hartzan duela Estatutu horreek eta alkartearen ganerako araudiek ezarritakoa beteteko, baita euren tutelapekoek bete daiezan bere. Adinbakoren legezko guraso-ahala daukan edozein pertsona hartuko da “gurasotzat”. Gurasoei jagoke, euren eskubide eta eginbeharrekoen barruan, ondoko funtzinoak betetea:

- 1) Denboraldi bakotxaren hasikeran, Danak Bat Pelotazale alkarteak eskatzen deutsezan datuak emon beharko dabez (identifikazio-datuak, administratiboak...), baita beharrezkoak diran baimenak bere.
- 2) Eurena izango da Danak Bat Pelotazale alkarteak eskatzen dituan agiriak epe barruan aurkezteko ardura, baita agiri horreek indarrean eukitekoa bere.
- 3) Danak Bat Pelotazale alkarteak erabagitako eta eskatutako ordainketak egiteko (ezarritako epeen barruan) konpromisoa hartzan dabe.
- 4) Ez deutsee ez kirolariei ez entrenatzaileari aholkurik ez orientabiderik emongo entrenatzailearen eskumenekoak huts-hutsean diran gaietan.
- 5) Euren semearen kirol irakasleagaz/entrenatzaileagaz eta Kirol Arduradunagaz hartzu-emon estua izan beharko dabe.
- 6) Deitzen jaken batzar guztietara joan beharko dabe.

Art. – 9. PADRES, MADRES O TITULARES DE LA PATRIA POTESTAD.

La inscripción de un deportista en el Danak bat P. A, supone el conocimiento y la aceptación por parte de los responsables legales del menor el tipo de actividad que el club ofrece y, en particular, les compromete a respetar los Estatutos, Reglamento y demás normativa del mismo, así como a procurar que sus tutelados lo respeten. Se entenderá como “padres” a cualquier persona que ostente la patria potestad legalmente. Corresponde a los padres desempeñar las siguientes funciones, dentro de sus derechos, deberes y obligaciones:

- 1) Al principio de cada temporada, facilitarán los datos identificativos, administrativos y autorizaciones pertinentes que el Danak bat P. A les solicite.
- 2) Se responsabilizarán que la documentación solicitada por el Danak bat P. A. esté vigente y de entregarla en los plazos estipulados.
- 3) Se comprometen a efectuar los pagos acordados y requeridos por el Danak bat P. A en la forma y plazos establecidos.
- 4) Abstenerse de aconsejar o recomendar tanto a deportistas como entrenadores de acciones que sean exclusivas del entrenador.
- 5) Mantener estrecha relación con el profesor/entrenador, Responsable Deportivo del club en el desarrollo deportivo de sus hijos.
- 6) Acudir a cuantas reuniones sean convocados.

IV.- KAPITULUA

DIZIPLINA-ARAUBIDEA

10. art.- NONDIK-NORAKOAK

- 1) Araudi hau Danak Bat Pelotazale alkarteko kide guztiei aplikatuko jake. Egoerak halan eskatzen dauenean, klubeko beste kide batzuei bere aplikatu ahal izango jake araudi honetan ezarrita dagoanaren kontra egiten badabe.
- 2) Arau-hausteen erantzuetzat ondokohoneek hartuko dira: batetik, zigortu beharreko egitatean zuzenean parte hartu dabenak; bestetik, inor bultzatu edo behartu dabenak egitate hori egiten; eta gertaera hori gauzatzen lagundu dabenak.
- 3) Danak Bat Pelotazale alkarteari lotutako erakundeek eta pertsonek ezingo dabe ezelan bere kirol ekintza baten –edozein eratakoa dala bere– parte hartu espedientatuta badagoz, ez bada, klubaren Presidenteak idatzizko baimena emon duela horretarako.
- 4) Araudi honetan oinarritutako zigorrek ez dabe arau-hauslea jagokozan ekintza judizialetatik libre ixten.
- 5) Kide guztiek daukiez oinarrizko eskubide eta betebehar berberak, bardin da zer adin daukien. Gurasoak edo legezko tutoreak izango dira adinbakoen erantzule.
- 6) Klubeko kirolariek euren eskubideak erabili ahal izango ditue, beti bere Danak Bat Pelotazale alkartearen ganerako kideen eskubideak onartu eta errespetatuta.
- 7) Kirol diziplinako erantzukizunaren astungarritzat joko da “berrerortzea” esaten jakona; hau da, zigortutako kideak lehenago bere diziplina-araubidea hautsi izana aurreko hiru urteetan, maila bereko eta altuago arau-hausteren bat eginda edo maila bajuagoko hiru (edo gehiago) arau-hauste eginda.
- 8) Kirol diziplinako erantzukizunaren aringarritzak, barriz, joko dira arau-haustea egin izanaz damutzea, probokazino nahikoa jaso izana (arau-haustea egin aurretik) edo zigorraren ganeko jakinarazpenik jaso ez izana.
- 9) Danak Bat Pelotazale alkarteko Gobernu Organoei jagoke, euren jarduera-eremuan, kirolariek zuzen jokatzen dabela eta euren eskubide eta betebeharak zorrotz beteten dirala bermatzea, diziplina-araubide honetan ezarritakoaren barruan.
- 10) Araubide honetan aurreikusita ez dagozan kontuak Zuzendaritza Batzordeak ebatziko ditu, edo ostantzean, gai bakotxean sartzeko edo eretxia emoteko izendatu dan edo gaitasuna daukan edozein agintarik.

CAPITULO IV

REGIMEN DISCIPLINARIO

Art. – 10. DEFINICIÓN Y REMISIÓN.

- 1) La presente normativa será de aplicación a todos los miembros del Danak bat P. A, pudiéndose extender en aquellas situaciones que así lo indiquen, a otros miembros relacionados con los mismos cuando éstos contravengan las determinaciones del presente reglamento.
- 2) Son responsables de faltas los que tomen parte directa en la ejecución del hecho punible, los que fuercen e inciten a otros a su ejecución y los que cooperen en la ejecución del mismo con un acto que contribuya a su ocurrencia.
- 3) Ninguna organización o persona adscrita al Danak bat P. A podrá participar en cualquier evento deportivo, sea del tipo o naturaleza que fuere, estando expedientado, salvo por autorización escrita del presidente del club.
- 4) Cualquier sanción impuesta, basándose en este Reglamento, no es excluyente de las acciones judiciales que le correspondan.
- 5) Todos los miembros tienen los mismos derechos y deberes básicos, sin más distinción que las derivadas de su edad, siendo responsables de éstos sus padres o tutores legales.
- 6) El ejercicio de sus derechos implicará el reconocimiento y respeto de los derechos de todos los miembros del Danak bat P. A.
- 7) Se considera circunstancia agravante de la responsabilidad deportiva la reincidencia y, por tanto, si el autor sancionado hubiere sido sancionado anteriormente por cualquier infracción a la disciplina deportiva de igual o mayor gravedad o por tres o más infracciones de inferior gravedad de la que en este supuesto se trate, en el transcurso de un periodo de tiempo de tres años.
- 8) Se consideran circunstancias atenuantes de la responsabilidad disciplinaria deportiva el arrepentimiento espontáneo, la provocación suficiente, previa a la infracción, o la de no haber sido notificada la sanción.
- 9) Corresponde a los Órganos de Gobierno del Danak bat P. A. garantizar, en su respectivo ámbito de actuación, el correcto ejercicio y la estricta observancia de los derechos y deberes de los deportistas en los términos previstos en el presente régimen disciplinario.
- 10) Lo no previsto en este Reglamento, será resuelto por la Junta Directiva y/o cualquier autoridad designada o con capacidad para intervenir y sugerir sobre un determinado caso.

11. art.- ARAUDIA.

Klubeko kirolarien diziplina araudiak bat egingo dau indarrean dagoan kirol arloko legeagaz, batez bere, kirol-kluben eta kirol-alkarteen ganekoa dan bagilaren 22ko 163/2010 Dekretuagaz.

12. Art.- ARAU-HAUSTEAK.

Arau-haustea era honetara sailkatuko dira:

1) ARAU-HAUSTE ARINAK:

- a. Datu faltsuak emon izana fitxa betekeran.
- b. Arrazoitu bako puntualidade hutsak.
- c. Entrenamenduetara eta kirol jarduera huts egitea arrazorik emon barik.
- d. Eraso fisiko arinak edo berbazkoak Klubeko kideei.
- e. Entrenatzaileari ez jakinarazotea ohikotik kanpoko edozer, edo entrenamendu edo partiduetara huts egitea aurretiaz –behar besteko denporaz (ahal danean behintzat)– abisatu barik.
- f. Klubaren sinboloak edo arropa ofiziala ez erabiltea, edo jardueretan sinbolo zein erropa hori aldatuta edo personalizatuta eroarea aldean, baldin eta Zuzendaritza Batzordeak berariazko baimena emon ez badau.
- g. Jarrera ez-duinak edo lotsagarriak izatea alkarteak parte hartzen dauen jardueretan.
- h. Jarrera pasiboa izatea kirol-prestakuntzako jardueretan parte hartzeko orduan eta teknikariek heziketa arlorako emoten dabezan jarraibideetan.
- i. Ekitaldi batetik joatea, arrazoi egiaztaturik emon barik.
- j. Oso egokiak ez diran oharrak egitea epaileei, teknikariei, entrenatzailleei edo klubeko ganerako arduradunei, jokalariei edo bertaratu diran ikusleei.
- k. Kideek kirola egiteko daukien eskubidearen kontrako errespetu faltak; entrenamenduetan, partiduetan eta ekitaldietan beste kirolari batzuekaz, epaileakaz, entrenatzaleakaz edota jardueragaz zerikusia daukan beste edonogaz larriak ez diran jarrera desegokiak izatea edota errespetu faltak agertzea.
- l. Klubeko egoitza, instalazino, material eta ganerakoak, baita Klubeko edo beste klub batzuetako kirolarien gauzak apropos hondatzea, kaltea larria ez bada.
- m. Larriak ez diran diziplina faltak, berba txarrak eta irainak; baita larriak ez diran eraso fisikoak bere.
- n. Klubaren ohiko jardueretan eragiten dauen justifikatu bako edozein ekintza.

Art. – 11. NORMATIVA.

El régimen disciplinario de los deportistas del Club se ajustará a lo establecido en la legislación deportiva vigente, en particular a lo dispuesto en el Decreto 163/2010, de 22 de Junio, de clubes deportivas y agrupación deportivas.

Art. – 12. INFRACCIONES.

Las faltas podrán ser clasificadas como:

1) FALTAS LEVES:

- a. Suministrar en su ficha datos falsos.
- b. Las faltas injustificadas de puntualidad.
- c. Las faltas injustificadas, no reiteradas de asistencia a entrenamientos y eventos deportivos.
- d. Quien agrede levemente o de modo verbal a cualquier miembro del club.
- e. La no comunicación a su entrenador de cualquier anomalía o falta de asistencia a entrenamientos o evento con la suficiente antelación cuando ello sea posible.
- f. No utilizar los símbolos o indumentaria oficial del Club, así como modificaciones o personalización, sin autorización expresa de la Junta Directiva, en los eventos que participe.
- g. Falta de dignidad y decoro en las actividades que participe.
- h. La actitud pasiva en relación a su participación en las actividades orientadas al desarrollo de los planes de preparación deportiva, así como a las orientaciones de los técnicos respecto a su aprendizaje.
- i. Abandonar sin causa justificada un evento en el que se encuentre participando.
- j. La formulación de observaciones a jueces, técnicos, entrenadores o demás autoridades deportivas del club, jugadores o contra el público asistente de modo que suponga una leve incorrección.
- k. La falta de respeto al ejercicio del derecho a la práctica deportiva de sus compañeros, así como cualquier comportamiento incorrecto y falto de respeto de carácter leve que pueda llevarse a cabo en entrenamiento, partido y eventos o con otros deportistas, jueces, entrenadores, delegados, público y cualquier otra persona relacionada con la actividad.
- l. El deterioro no grave, y causado intencionadamente, de las dependencias del Club, del material del mismo o de los objetos y pertenencias de los demás miembros del Club o de terceros.
- m. Los actos de indisciplina, injuria u ofensa no graves y los actos de agresión física que no tengan carácter de graves.
- n. Cualquier acto injustificado que altere levemente el normal desarrollo de las actividades del Club.

2) ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- a. ARAU-HAUSTE ARIN bat bigarrenez egitea.
- b. Arau-hauste larriengaitik ezarritako zigorrak ez betetea.
- c. Bazar Orokorean hartutako erabagiak, Zuzendaritzza Batzordeak hartutakoak edota estatutuetako eta araudietako xedapenak ez betetea.
- d. Kirolarien, teknikarien, entrenaztakoen eta zuzendaritzako kideen egitekoetan sartzea, euren baimena euki barik.
- e. Edozein eratako ekintzak antolatzea edo antolaketa-lanetan laguntza, baldin eta Zuzendaritzza Batzordeak ez badau horretarako idatzizko baimenik emon.
- f. Klubeko kideek kirola egiteko daukien eskubidearen kontrako errespetu faltak agertzea behin eta barriro; entrenamenduetan, partiduetan eta ekitaldietan beste kirolari batzuekaz, epaileakaz, entrenatzaileakaz edota jarduereagaz zerikusia daukan beste edonogaz larriak diran jarrera desegokiak edota errespetu faltak agertzea.
- g. Larriak diran diziplina faltak, berba txarrak eta irainak, bai Klubeko kideei zuzenduta eta bai beste batzuei bere; izan bere, Klubaren irudiaren kalterako dira.
- h. Eraso fisiko larriak Klubeko kideei, beste klub batzuetakoei, epaileei, ikusleei eta abarri.
- i. Txarto erabilteagaitik, Klubaren gauza edota instalazioetan kalte larriak sortzea; gauza bera jazoko da kalteak Klubeko ganerako kideen gauzei edo beste klub batzuetako gauzei eragin ezkerro.
- j. Ezetz esatea jarduera baten parte hartzeari, Danak Bat Pelotazale alkarteak halan eskatu badeutso.
- k. Klubaren jarduerak normaltasunez burutu ahal izateko kalte handia egiten daben justifikatu bako ekintzak.
- l. Kiro arlotik kanpokoak izan arren, gure kirola edo Danak Bat Pelotazale alkartearen irudia edozelan kaltetzen daben jarrerak edo portaerak.
- m. Diziplina Batzordeak edo Zuzendaritzza Batzordeak hartutako erabagiak ez betetea.

2) FALTAS GRAVES:

- a. Cualquier reiteración de FALTA LEVE.
- b. El quebrantamiento de sanciones impuestas por infracciones leves.
- c. El incumplimiento de los acuerdos tomados en Asamblea General, Junta Directiva, disposiciones estatutarias o reglamentarias.
- d. La intromisión en las labores de deportistas, técnicos, entrenadores o directivos sin el consentimiento de los mismos.
- e. La organización o colaboración de actividades de cualquier índole sin la correspondiente autorización, por escrito, de la Junta Directiva.
- f. La reiterada y continuada falta de respeto al ejercicio del derecho a la preparación de sus compañeros, así como cualquier comportamiento incorrecto y falto de respecto de carácter grave que pueda llevarse a cabo en entrenamientos, partidos y eventos o con otros deportistas, jueces, entrenadores, delegados, público y cualquier otra persona relacionada con la actividad.
- g. Los actos de indisciplina, injuria u ofensa graves a los miembros del Club y otros en deterioro de la imagen del Club.
- h. La agresión física grave a los demás miembros del Club o de otros Clubes, así como a los jueces, espectadores, etc.
- i. Causar por uso indebido daños graves en los objetos y dependencias del Club o en las pertenencias de los demás miembros del Club o de terceros.
- j. La negativa del deportista a participar en cualquier evento para las que el Danak bat P. A. lo haya convocado.
- k. Los actos injustificados que alteren gravemente el normal desarrollo de las actividades del Club.
- l. Cualquier deportista que en su actividad extradeporativa mantenga una conducta que, de alguna manera, lesione la imagen de nuestro deporte o del Danak bat P. A.
- m. Incumplimiento de las resoluciones acordadas por la Comisión Disciplinaria o la Junta Directiva.

3) ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK:

- a. Hirugarren arau-hauste larria urte biko epean, aurreko arau-haustea irmoak izan badira.
- b. Agintekeria eta, baimenik euki barik, inoren eskudantziak edo eskumenak hartzea.
- c. Arau-hauste larri edo oso larriengaitik ezarritako zigorrak ez betetea.
- d. Danak Bat Pelotazale alkartearen edo bere edozein kideren kontrako mespretxuzko adierazpenak, indiziñazko berbak, irainak edo laidoak, klubaren irudia kaltetzen dabenak.
- e. Danak Bat Pelotazale alkarteari gurata kaltea eragin deutson edozein ekintza, kirol arlokoa zein beste edozein eratakoa.
- f. Eraso fisiko oso larriak Klubeko kideei, beste Klub batzuetakoei, epaileei, ikusleei eta abarri.
- g. Danak Bat Pelotazale alkartean izena emonda dagoan eta Federazinoaren lizentzia daukan kirolariak beste klub edo alkarte baten ekintzetan, partiduetan edo entrenamenduetan parte hartu izana edo edozein zerbitzu eskaini izana, baldin eta ez badau Danak Bat Pelotazale alkartearen Presidenteararen berariazko idatzizko baimena lortu.
- h. Klub barruan azpitaldeak edo eginkizun jakin batzuetarako taldeak osatzea (kudeaketa, zuzendaritza edo prestakuntza lanetarakoak, zein talde teknikoak), Zuzendaritza Batzordearen idatzizko baimena euki barik.
- i. Klubeko edozein kidek (guraso edo klubeko kideren baten legezko ordezkari izan) erdeinua edo errespetu falta erakustea –berbaz zein idatziz– Danak Bat Pelotazale alkartearen jardueren kontra edo Danak Bat Pelotazale alkarteko Zuzendaritza Organo, Kirol Alduradun, ordezkari, entrenatzaile edo kideen contra.
- j. Klubeko edozein kidek (guraso edo klubeko kideren baten legezko ordezkari izan) klubeko organo eskudunek bideratzen dabezan gaien ganeko informazinoa publizitatzea (fotokopia, faxa, email edo ostantzeko bidez). Hona hemen gai horreek: abian jarriko diran auzigaiak, bideratzen dagozanak edo ebatzitakoak, zein salaketak, kexak, txostenak, apelazioak edo birplanteamenduak; baldin eta eurotan kirolari, teknikari, zuzendaritzako kide edo entrenatzaileak iraintzen dabezan berbak agertzen badira edo euron kontrako jarrerak sustatzen badira.
- k. Borrokak edo liskarrak sortzea edo eurotan parte hartzea, baita beste kirolariak, zuzendaritzako kideak, epaileak eta ganerako kideak indarkeriazko ekintzak egiten animatzea.
- l. Zuzendaritza Batzordeak, Diziplina Batzordea ados dala, arau-hauste oso larritzat joten dauen beste edozein arau-hauste.

3) FALTAS MUY GRAVES

- a. La tercera infracción grave cometida en un periodo de dos años, siempre que las dos anteriores sean firmes.
- b. Abuso de autoridad y la usurpación ilegítima de atribuciones o competencias.
- c. El quebrantamiento de sanciones impuestas por falta grave o muy grave.
- d. Manifestaciones públicas de indisciplina, desprecio, insulto o vejación hacia el Danak bat P. A. o cualquier miembro del mismo u otros en deterioro de la imagen del club.
- e. Cualquier acto, deportivo o no, que cause un perjuicio intencionado al Danak bat P. A.
- f. La agresión física muy grave a los demás miembros del Club o de otros Clubes, así como a los jueces, delegados, espectadores, etc.
- g. El deportista inscrito en el Danak bat P. A. y con licencia Federativa por el mismo que participe en cualquier evento, partido o entrenamiento con una Asociación o Club, distinto a su club o realice cualquier prestación o servicio, sin haber obtenido la debida autorización por escrito del Presidente del Danak bat P. A.
- h. La organización de grupos internos en el club o colectivos con gestión, dirección o fines formativos o técnicos, sin la aprobación por escrito de la Junta Directiva.
- i. Todo aquél (miembro del club, padre, madre o representante legal de un miembro del club) que menosprecie las actividades, injurie de hecho o falte al respeto de palabra o escrito al Danak bat P. A., Órganos de Gobierno, Responsable Deportivo, delegados, entrenadores o a sus representantes o miembros del Danak bat P. A.
- j. Todo aquél (miembro del club, padre, madre o representante legal de un miembro del club) que de publicidad (fotocopias, fax, e-mail, otros...) a cualquier comunicación que dirija el organismo competente sobre cuestiones a iniciarse, en trámites o resueltas, o cuando se trate de denuncias, protestas, informes, apelaciones o reconsideraciones y en ella se ofenda a grupos, deportistas, personal técnico, dirigentes o entrenadores, o se incite en contra de ellos.
- k. Provocar o participar en riñas o peleas o inculcar cualquier acción violenta con otros deportistas, directivos, jueces, etc.
- l. Cualquier faltaanáloga que la Junta Directiva estime como tal y bajo la supervisión de la Comisión Disciplinaria.

13. art.- ZIGORRAK

Kirol Arduradunak, Ordezkariak edota Entrenatzaileak ezarriko dabez arau-hauste arinei jagokezan zigorak. Arau-hauste larri eta oso larriei jagokezenak, barriz, Diziplina Batzordeak ezarriko ditu, Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren berrespenagaz, Estatutuek halan eskatzen badabe. Arau-hausteen larritasunaren arabera, ondoko zigorak ezarriko dira:

1) ARAU-HAUSTE ARINAK:

- a. Berbazko kargu-hartze pribatua edo publikoa. Entrenatzaile, Ordezkari, Kirol Arduradun edo Zuzendaritza Batzordeko kide baten ardura izango da kargu-hartze hori egitea.
- b. Entrenamendu-saiotik kanporatzea.
- c. Lehiaketatik ateratzea edota kanporatzea.
- d. Idatzizko kargu-hartzea. Kirol Arduradunak gordeko dau idazki hori eta, arau-hauslea 18 urtetik beherakoa bada, gurasoei jakinarazoko jake.
- e. Eragindako kaltea arintzeko edo konpontzeko lanak egitea, egoki bada.
- f. Kirola egiteko baimena kentzea 15 egunerako gehienez bere.
- g. Diziplina espedientea abiatzea denboraldi bakar baten barruan 10 falta egin dituanari. Kasu horretan aukeran egongo da falta larritzat jo eta jagokon zigorra ezartzea.

2) ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- a. Asistentzia hutsak behin eta barriro eta justifikatu barik egin badira, abisua egitea; eta, abisuzaz ganera, jagokon ordezkariak eta kirol koordinatzaileak jarrera horren ganeko txosten zehatza egingo dabe.
- b. Danak Bat Pelotazale alkarteko edozein kideri diziplina espedientea edegitea, arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egin baditu; arau-hauste hori oso larritzat zigortuko dan ala ez erabagiteko.
- c. Eragindako kalte materiala arintzeko edo konpontzeko lanak egitea, egoki bada; edota, Klubaren jarduerak hobetzeko edo garatzeko lanak egitea. Lan horreek gehienez bere hilabeteko epean egin beharko dira.
- d. Kirol praktikatik kanpo ixtea, gehienez bere, 21 egunez.
- e. Taldez aldatzea portaera egokia erakutsi arte edo zigorra beteta euki artea.
- f. Kirol honegaz lotutako jarduera bakar baten bere ez parte hartzea (federazioaren entrenamenduak, stageak, ikastaroak, lehiaketak eta klubaren ganerako ekitnzak) 30-90 eguneko epean.
- g. Eragindako kalteak ordaintzea.

Art. – 13. SANCIONES.

El Responsable Deportivo, Delegado y/o Entrenador impondrán dichas sanciones en el caso de las faltas leves. Las faltas graves y muy graves serán competencia de la Comisión Disciplinaria, junto con la ratificación de la Junta Directiva y/ Asamblea General, si así lo exigieran los Estatutos. Según la gravedad de las faltas, se impondrán las siguientes sanciones:

1) FALTAS LEVES:

- a. Amonestación verbal privada o pública del Entrenador, Delegado, Responsable Deportivo o miembro de la Junta Directiva.
- b. Expulsión de la sesión de entrenamiento.
- c. Exclusión y/o expulsión de la competición.
- d. Amonestación escrita, de la que conservará constancia el Responsable Deportivo, siendo comunicada a los padres en caso de ser menor de 18 años.
- e. Realización de tareas, si procede, que cooperen en la reparación de la falta cometida.
- f. Suspensión de la práctica deportiva por un período de tiempo no superior a 15 días.
- g. Apertura de expediente disciplinario en la acumulación de 10 faltas leves en el transcurso de la temporada, susceptible de determinar sanción por falta grave.

2) FALTAS GRAVES:

- a. Apercibimiento, en el caso de continuas faltas injustificadas de asistencia, en el que se incluirá un informe detallado del delegado correspondiente y del Responsable Deportivo sobre dicha actitud.
- b. Apertura de expediente disciplinario a cualquier miembro del Danak bat P.A., susceptible de determinar sanción por falta muy grave en la acumulación de faltas graves o reincidencia.
- c. Realización de tareas que contribuyan a la reparación de los daños materiales causados, si procede, o a la mejora y desarrollo de las actividades del Club. Estas tareas deberán realizarse por un período que no podrá exceder de un mes.
- d. Suspensión del derecho a asistir a entrenamiento deportivo por un período de tiempo no superior a 21 días.
- e. Cambio de grupo hasta su recuperación o cumplimiento de la sanción.
- f. No participar en ningún evento relacionado con el deporte practicado (entrenamientos federativos, stages, cursos, competiciones y otras actividades externas al club), por un período de 30 a 90 días.
- g. Abono de los daños causados.

3) ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK:

- a. Eragindako kalteak ordaintzea.
- b. Sortu diran kalte materialak konpontzen edota Klubaren jarduerak hobetzen eta garatzen lagunduko daben lanak egitea. Lan horreek egiteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez bere.
- c. Kirol praktikatik kanpo ixtea (epea: gitxienetik 90 egun eta gehienez bere kirol denporaldi osoa). Zuzendaritza batzordeak kirolaria atzera hartu ahal izango dau taldearen barruan, kirolariak horretarako eskaria egin ostean eta bere jarreran onerako aldaketa egon dala egiaztatu ostean.
- d. Bazkide, abonatu, teknikari, entrenatzaile, ordezkari, kirolari eta zuzendaritzako kide modura inhabilitatzea, izaera hori etetea edo kentzea, tarte baterako edo betiko, egindako arau-haustearen edo arau-hausteen larritasunaren arabera.
- e. Kluberako edo kirol eremu zein instalazioetarako sarrera galarazotea.
- f. Danak Bat Pelotazale alkartetik botatea.

3) FALTAS MUY GRAVES

- a. Abono de los daños causados.
- b. Realización de tareas que contribuyan a la reparación de los daños materiales causados, si procede, o al mejor desarrollo de las actividades del Club. Estas tareas deberán realizarse por un período que no podrá exceder de seis meses
- c. Pérdida del derecho a la práctica deportiva por un período entre 90 días y una temporada deportiva. La Junta Directiva podrá acordar la readmisión del deportista previa petición y comprobación de un cambio positivo en su actitud.
- d. La inhabilitación, suspensión o privación de la condición de socio, abonado, ejercer como técnico, entrenador, delegado, deportista o cargo directivo con carácter temporal o definitivo, en adecuada proporción a la infracción o infracciones cometidas.
- e. Prohibición de acceso al club, área o recinto deportivo
- f. Expulsión del Danak bat P.A.

14. art.- ZIGORRAK EZARTZEKO ESKUMENA

- 1) Ordezkari-entrenatzailea izango da, Zuzendaritza Batzordeak eskuordetuta, arau-hauste arinei zigorra ezarriko deutsena. Zigor horreen barri Kirol Arduradunari emongo deutso, eta Klubeko beste organo batzuei bere bai egoki baderitxo.
- 2) Diziplina Batzordea izango da, Zuzendaritza Batzordeak eskuordetuta, arau-hauste larriei edo oso larrei zigorra ezarriko deutsena.

15. art.- ZIGOR-PROZEDURA

- 1) Presidenteak Idazkariari agindu ahal izango deutso, expedientea abiatu aurretik, ikertu daizala zigorgarriak izan leitekezan jarrera horrek. Ikerketa hori aztertuta, Presidenteak jarduketak artxibatzea edo zigor expedientea abiatzea erabagiko dau.
- 2) Expedientea abiatu ostean, Idazkariak idazki bat bialduko deutso interesdunari. Idazki horretan leporatzen jakozan karguak zeintzuk diran esateaz ganera, azalduko jako hamabost eguneko epea daukala bere eskubidea babestekoak diran alegazinoak aurkezteko. Interesdun guztiei (interesdunari berari edo bere guraso zein legezko ordezkarieei, teknikariei, Kirol Arduradunari eta interesgarriak izan leitekezan datuak eduki lekiezan guztiei) emongo jake esan gura dabena berbaz esateko aukera, hau da, entzunaldia-tramitea eskainiko jake. Behin hori eginda, Diziplina Batzordeari expedientearen ganeko txostena bialduko jako.
- 3) Neurri zuzentzaileak urgentziaz ezarri behar diranean, gaiaren zabalkundearen eta larritasunaren arabera, zuzenean esku hartu ahal izango dau Diziplina Batzordeak edo Kirol Arduradunak; instrukzino aldean egiaztapenik egin barik, baina aldez aurretik Ordezkariak/Entrenatzaileak egindako txostenetan aztertuta eta interesdunak eta bere gurasoek edo teknikariek esateko daukiena entzun ostean. Zigorren barri idatziz emongo jako interesdunari berari edo bere legezko ordezkariari.
- 4) Klubaren ohiko jarduerak normaltasunez burutzen dirala bermatzeko beharrezkoa danean – expedientea arau-hauste larri edo oso larrien ondorioz sortu bada–, Instruktoreak behin-behineko neurriak hartzeko proposatu ahal izango deutso Diziplina Batzordeari edo Kirol Arduradunari; besteak beste, aldi batez Klubera joatea galarazotea edo kirolaria taldez aldatzea behin-behineko eran.
- 5) Alegazinoak aurkeztu ostean edo horretarako epea bete danean, Idazkariak expedientea Diziplina Batzordeari emongo deutso, jagokon erabagia hartu daian. Diziplina Batzordearen bi herenen botoa beharko da baziideari klubeko kide izaera kentzeko.
- 6) Hartutako erabagia interesdunari jakinarazoko jako, eta esango jako hamabost eguneko epea daukala erabagi horren kontra errekurtsoa aurkezteko Zuzendaritza Batzordeari. Errekurtsorako hori Zuzendaritza Batzordeak egiten dauen hurrengo bileran ebatziko da.

Art. – 14. COMPETENCIA PARA LA IMPOSICIÓN DE SANCIONES

- 1) El delegado-entrenador, por delegación del Responsable Deportivo, será el encargado de establecer las sanciones para las faltas calificadas como leves, dando cuenta de ello al Responsable Deportivo y sin perjuicio de la información que mientras tanto pueda facilitar a los distintos estamentos del Club.
- 2) La Comisión de Disciplina es el órgano que, por delegación de la Junta Directiva, se encarga de los asuntos referentes a los deportistas que pudieran incurrir en faltas graves y muy graves.

Art. – 15. PROCEDIMIENTO SANCIÓNADOR

- 1) El Presidente podrá ordenar al Secretario, con anterioridad al inicio del expediente, la apertura de una investigación previa para la determinación de las conductas que pudieran ser sancionables. A la vista de ésta, el Presidente ordenará archivar las actuaciones o la incoación de expediente sancionador.
- 2) Incoado el expediente, el Secretario remitirá escrito al interesado, en el que se le pondrán de manifiesto los cargos que se le imputen, pudiendo presentar alegaciones, en defensa de su derecho, en el plazo de quince días. Dará audiencia a éste, a sus padres o representantes legales, a los técnicos, Responsable Deportivo y a cuantas personas, a su juicio, puedan aportar datos de interés ya que finalmente, elevará informe sobre dicho expediente a la Comisión Disciplinaria.
- 3) En los casos que sean precisas medidas correctoras con urgencia y, en función a la publicidad y notoriedad del acto, podrá actuar directamente la Comisión Disciplinaria o el Responsable Deportivo, sin que se requieran comprobaciones en la fase de instrucción; previo informe escrito del Delegado/Entrenador y con audiencia del interesado y sus padres o técnicos. La sanción se comunicará por escrito al interesado o representante legal.
- 4) Cuando sean necesarias para garantizar el normal desarrollo de las actividades del Club, el Instructor podrá proponer a la Comisión Disciplinaria o al Responsable Deportivo, la adopción de medidas provisionales, entre ellas la suspensión temporal del derecho de asistencia al Club, el cambio provisional de grupo del deportista, cuando el expediente se haya incoado por conductas que pudieran constituir faltas graves o muy graves.
- 5) Una vez presentadas las alegaciones o transcurrido el plazo para ello, el Secretario dará traslado del expediente a la Comisión Disciplinaria que adopte acuerdo al respecto, requiriéndose el voto favorable de dos tercios de sus componentes cuando se imponga la sanción de pérdida de la condición de socio del club.

- 6) El acuerdo adoptado se notificará al interesado, comunicándole que contra el mismo podrá interponer recurso ante la Junta Directiva en el plazo de quince días, que será resuelto en la primera que se celebre.

16. art.- PRESKIPZINOA

- 1) Araudi honetan aurreikusten diran arau-hausteek ondoko preskripzino-epeak izango dabez:
 - Oso larriak diranean, urte bi garrenean.
 - Larriak diranean, urtebete garrenean.
 - Arinak diranean, hilabete garrenean.
- 2) Preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik aurrera hasiko da kontatzen. Arau-hausteen preskripzino-epea eten egingo da zigor espedientea abiatu dala jakinarazten dan unean bertan, baina prozedura horrek hilabete baino gehiagoko etena jasaten badau eta eten hori ezin bajako egotzi prozedurari lotutako pertsona edo erakunde arduradunari, orduan, barriro bere martxan jarriko da preskripzino-epea.
- 3) Zigorak urte bi garrenean, urtebete garrenean eta hilabete garrenean (arau-haustearen arabera) preskribatuko dira. Zigorra ezartzen dauen ebazpena irmo bihurtzen dan hurrengo egunetik gora kontatu beharko da epe hori edo, osterantzean, betebeharra hautsi dan egunetik gora (betebehar hori indarrean badago).

17. art.- TRAMITAZINOA.

Diziplina Batzordea izango da Kirol Diziplinako espedienteak ebazteko eskumena izango dauen organoa, Zuzendaritza Batzordearen eskuordetza jasoko dau-eta, araudi honek ezartzen dauenari jarraituta. Danak Bat Pelotazale alkarteko edozein kideri (kirolari, teknikari, Zuzendaritza Batzordeko kide edo beste edozeini) jarritako Kirol Diziplinako salaketa guztiak bete beharko dabez ondoko baldintzak:

- 1) Diziplina Batzordeari idatziz emon beharko jakoz ondoko datuak:
 - a. Salatutako pertson(ar)en izen-abizenak.
 - b. Salatutako ekintzaren edo portaeraren azalpen zehatza.
 - c. Ekintza horren lekuoa –egon ezker– eta frogak.
 - d. Eragindako kaltea –kalterik balego–.
 - e. Beharrezkotzat joten dan beste edozein ohar.
 - f. Data eta sinadura.
- 2) Diziplina Batzordeak ofizioz abiatu ahal izango dau diziplina espedientea araudi honetan deskribatutako edozein kasutan.

Art. – 16. PRESCRIPCIÓN.

- 1) Las infracciones previstas en el presente reglamento prescribirán:
 - A los dos años las consideradas muy graves.
 - Al año las graves.
 - Al mes las leves.
- 2) El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contar el día en que la infracción se hubiese cometido. El plazo de prescripción de las infracciones se interrumpirá en el momento que se notifique la iniciación del procedimiento sancionador, pero si éste permanece paralizado durante más de un mes, por causa no imputable a la persona o entidad responsable sujeta a dicho procedimiento, volverá a transcurrir el plazo correspondiente.
- 3) Las sanciones prescriben a los dos años, al año o al mes (según a la infracción que corresponda), siempre que no fueren definitivas, comenzándose a contar el plazo de prescripción desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impuso la sanción, o desde que se quebrantase su cumplimiento si éste hubiera comenzado.

Art. – 17. TRAMITACIÓN.

El órgano competente en la resolución de los expedientes de Disciplina Deportiva será la Comisión Disciplinaria, por delegación de la Junta Directiva, según establece este reglamento.

Cualquier denuncia en materia de Disciplina Deportiva interpuesta sobre un deportista, técnico, directivo u otro miembro del Danak bat P.A., debe cumplir los siguientes requisitos:

- 1) Presentar por escrito a la Comisión Disciplinaria los siguientes datos:
 - a. Nombre de la persona o personas denunciadas.
 - b. Explicación detallada del hecho o comportamiento denunciado.
 - c. Relación de posibles testigos de las acciones, si existieran, y pruebas.
 - d. Perjuicio ocasionado si fuese el caso.
 - e. Cualquier otra observación que considere oportuna.
 - f. Fecha y firma del documento.
- 2) La Comisión Disciplinaria podrá entrar de oficio ante cualquier situación que esté escrita en este reglamento.